

INTERPRETAZIO LANA AUZITEGIETAN

Interpretazioa eta itzulpena askotan nahastu egiten diren bi termino oso desberdin dira. Itzulpena idatzizkoa da eta interpretazioa, aldiz, ahozkoa. Hainbat interpretazio mota daude: aldiberekoa (kabinetan egiten dena) eta esan ostekoa (hizlariak kontatu duenarekin koadernoan notak hartu eta diskurtsoa gero ematen delarik). Hurrengo lanean interpretazio lanaz arituko gara. Horretarako, hasiera batean haren bilakaera azalduko dugu modu labur batean. Interpretazioa erregulatu duten legeei egingo diogu erreferentzia ondoren. Lanaren mamia interpretazio lana auzitegieta aztertzea izango da. Baina interpretazio lana ez da bakarrik auzitegieta mugatzen. Horren ondorioz, lana amaitutzat emateko Europar Batasunean zer nolako interpretazio lana egiten den zertxobait ikusiko dugu, bertan lan egiten duen interprete baten ikuspuntutik.

1. SARRERA

Gaia jorratzen hasi baino lehen interpretazioak historian izan duen bilakaera aipatuko dugu modu orokor eta labur batean. Lehenik eta behin garbi utzi behar dugu historiaren hasiera batean hitzunen borondatearen arabera zela euskaraz hitz egiteko erabakia. Hau da, ez zegoen inolako betebeharrak edo araudi berezirik euskaldunak euskaraz hitz egitera bultzatzen zituenik.

1982an Gipuzkoako Batzar Nagusiak izan ziren batzarkideek osoko bilkuretan beren adierazpenak euskaraz egiteko eskubidea eduki eta hori bermatzeko bideak jarri zituen lehen euskal erakundea, euskarazko jardunak gazteleraz entzun behar zituztenentzat aldibereko interpretazioaren teknika ezarriz. Foru Aldundian itzulpen lanerako kontratatuta zegoen itzultzailea zen lan hori egiten zuena, inolako prestakuntza berezirik gabe. Aldi berean, Donostiako Lurralde Auzitegian akusaturen batzuei ere egin behar izan zitzaizkien beraien aitortzearen itzulpena gaztelerara. Bigarren kasu honetan aldibereko teknika ordez esan ostekoa egiten zitzaizkien. Eusko Legebiltzarrean ere kontratatu ziren lehen itzultzaile-interpreteak osoko bilkuretan nahiz batzordeen bileretan aldibereko interpretazioa egiteko. Udalak izan ziren segidan zinegotzien ahozko euskal jardunen interpretazioari ekin ziotenak. Bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateak 1982ko Uda Ikastaroetan eman zion hasiera ahozko jardunak aldi berean itzultzeari. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren estruktura barruan ere hasi ziren 1990eko azken zatian euskara ahoz erabiltzen.

1987an lehen euskal interpreteen benetako eskola sortu zen, Mundu Biltzarra. Administrazioan lanean ari ziren itzultzaile zenbaitek eta Martuteneko Itzultzaile Eskolan ikasketak egindako beste batzuek osatu zuten lehen euskal interprete taldea. Izan ere, idatzizko itzulpenen beharrezkoak ziren trebetasun desberdinak nahitaezkoak ziren interprete lana egin ahal izateko, prestakuntza berezi bat eskatzen zutenak.

2. NAZIOARTEKO ARAUAK ETA ARAU NAZIONALAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan euskararen erabilerak etengabeko gorakada izan duela gauza jakina da gaur egun. Euskararen Legea 1982an onartu zenetik hainbat arau ezarri dira euskararen garapena eta, batez ere, hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Aipatutako azaroaren 24ko 10/1982ko Euskararen Legeak zera dio: Euskal herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. 14. artikulua honako hau gehitzen du: Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beraiek hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

Badira arau internazionalak gai hau jorratzen dutenak ere. Adibidez, Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak. Bertan aipatzen da judizio zuzen bat izateko eskubidearen barruan interprete baten partizipazioa biltzen dela. Izan ere, tribunalak hitz egiten duen hizkuntza ulertzen ez badugu, ezin izango dugu gure eskubideak aldarrikatu. Horregatik, kasu hauetan interprete baten laguntza ezinbestekoa dela inork ez du auzian jarriko. Bestetik, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko 1966ko abenduaren 19ko New Yorkeko nazioarteko Ituneko 14. artikulua zera esaten du: prozesu baten barruan edozein pertsonak, doan, interprete baten laguntza izateko eskubidea du tribunalak erabilitako hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badu.

Europar Batasunean ere hainbat instrumentu daude eskubide hau bermatzen dutenak. Aipatzekoa da, adibidez, Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunen Babesari buruzko 1950eko azaroaren 4ko Erromako Hitzarmena. Bertan zehazten da pertsona batek zergatik atxilotu dioten jakiteko eskubidea duela, ulertzen duen hizkuntza batean esan behar zaiolarik. Hori horrela ez bada, interprete baten laguntza dohain izango du. Atal hau bukatzeko Europar Batasuneko Legebiltzarrak eta Kontseiluak onartutako zuzentarau bati egingo diogu

erreferentzia, 2010/64/UE zenbakidunari, hain zuzen ere. Izan ere, 2009ko azaroaren 30ean Kontseiluak ebazpen bat eman zuen, zigor prozesuetako akusatuen eskubideak bermatzeko asmoz. Zuzentarau horretan interpretazio eta itzulpen eskubideak aldarrikatzen da, besteak beste. Hala eta guztiz ere gogoratu behar dugu zuzentarauek gutxieneko arau batzuk zehazten dituztela, gero Estatu Kideak transposizioa egiterakoan hobetu ditzaketenak. Hala eta guztiz ere, neurri hauekin Estatu Kide guztiek gutxieneko batzuk errespetatuko dituztela bermatzen da.

Esan bezala, zuzentarau horretan zigor-prozesuan interpretazio eta itzulpen eskubidearekin lotuta dauden arauak zehazten dira. Arau horiek hainbat ataletan desberdintzen dira:

- Interpretazio eskubideak: prozesu penal batean susmagarria edo akusatua dena, prozesu penaleko hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badu, Estatu Kideek interprete batekin harremanetan jarri behar du. Era berean, interpretazio zerbitzu bat eskaini behar da akusatua eta haren abokatuaren arteko komunikazioa bermatzeko. Azkenik, kalitateko interpretazio bat egin behar dela aldarrikatzen da zuzentarau honetan, defentsa-eskubidea defendatzeko asmoz. Alabaina, Estatu Kideek mekanismo bat garatu behar dute hizkuntza ulertzen edo hitz egiten duen ala ez egiaztatzeko.
- Prozesuan erabiltzen diren funtsezko dokumentu guztiak ere akusatua ezagutzen duen hizkuntza batera itzuli behar dira. Modu honetan akusatua defentsa-eskubideak bermatu ahal izango dira eta prozesua ekitatiboa izango da. Bestetik, gogorarazten da itzulpen hau arrazoizko epe batean eman behar dela. Euroagindua baten kasuan, hari atxikitako dokumentazioa izango da itzuli beharrekoa. Hori horrela bada ere, dokumentu hauen itzulpena idatziz edo ahoz egin ahal izango da, batean zein bestean itzulpenak kalitatezkoa izan behar duelarik.
- Itzulpen- eta interpretazio-gastuak Estatu Kideak ordainduko dituzte.
- Aipatu dugun moduan bai itzulpenak bai interpretazioak kalitatezkoak izan behar dute. Horretarako Estatu Kideak itzulpen eta interprete independenteak prestatu behar dituzte, kualifikazio maila jasoa izan dezaten. Izan ere, komunikazio eraginkorra bermatu behar dute aldean edota interesatuen artean.

- Azkenik, komenigarria da aipatzea interprete eta itzultzailetara jotzea beharrezkoa izan bada, egoera hau Estatu Kideak izan behar duten erregistro batean aipatu behar dela.

Beraz, ikusi ahal izan dugun moduan, kasu askotan interprete baten presentzia beharrezkoa da pertsona baten oinarrizko eskubideak errespetatu nahi baldin badira. Auzitegietan gauzatzen den interpretazioaren helburua herritarrek justiziaren erlazioekiko baldintza berberak izatea da bertako hizkuntza ezagutzen ez dutenean.

3. EPAITEGIETAKO INTERPRETATZE-LANA EUSKAL HERRIAN

Oraingo honetan epaitegietako interpretatze lana aztertuko dugu. Baina interpretatze lana hain zabala izanik, lan honetan Epaitegietan gauzatzen dena mugatuko dugu azalpena. Are gehiago, Euskal Herrian bizi dugun egoera besterik ez dugu esplikatuko.

Badakigu Euskal Autonomi Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudela: euskara eta gaztelania; ondorioz, baita Administrazio Orokorrean ere. Justizian, ordea, gaur egun oraindik hizkuntza bakarra erabiltzen da gehietan, gaztelera. Izan ere, fiskal gehienek, epaileek, abokatuek, idazkariak elebakarrak dira. Baina herritarrok, ikusi ahal izan dugun moduan, berezko eskubidea dugu euskaraz egin ahal izateko esparru hauetan ere. Hau da, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea oinarrizko eskubidea da. Horregatik, justizia-sistemak herritar horiei euskaraz kasu egiteko eta erantzuteko betebeharra du. Egoera honen konponbidea itzultzaileen eta interpreteen lana da.

Aipatu beharra dago administrazioaren atal guztietan antzeko egoera bizi izan dela urte askotan. Baina desberdintasun nabarmenak daude idatzizko harremanen eta ahozko harremanen artean. Izan ere, herritarren eta administrazioaren arteko harreman gehienak idatziz bideratzen direnez, itzultzaileek administrazioak dituen hutsuneak bete ahal dituzte. Ahozko harremanetan aldiz zailagoa da. Harreman hori bideratzeko ardura dutenek euskaraz jakin edo ikasi beharko lukete. Horrela egin da makina bat funtzionarioekin. Baina administrazioaren arlo batzuk, bada, justizia arloa, nahikoa atzera geratu dira.

Epaitegietan interprete-lana oso lan berezia da. Horregatik, auzitegi eta epaitegietan interprete-lanean aritzeko zuzenbidea eta zuzenbidearen ingurukoak zenbat eta hobeto ezagutu hobe. Hala ere, aditu batzuen iritziz, epaiketa batean interpretazioak egoteak ezin du inolako mesederik ekarri. Tartean interpretea sartzeak esan nahi du berez egon behar ez lukeen bitartekari bat izango dugula, hizlariaren eta justiziaren artean beste urrats bat egongo

dela. Baina, hizlariak esanak ulertzeko modurik ez badago, beste hizkuntza batean ari delako, bitartekari horren lana ezinbestekoa da. Are gehiago, interpretea bera operadore juridikoa da gaur egun.

Ahozko itzulpena, interpretaritzak, bi eratakoa izan daiteke: esan osteko interpretaritzak eta aldibereko interpretaritzak. Lehenengoan, hizlariak hitz egiten bukatzen duenean itzultzen du itzultzaileak. Bost bat minutuko saioak egin ditzake gehienez hizlariak, eta interpreteak oharrak jasotzen ditu mintzaldia entzun ahala, amaitzean euskaraz esandakoa gazteleraz, edo alderantziz, adierazteko. Aldiberekoan, ordea, hizlariak hitz egin ahala itzultzen du interpreteak. Horretarako, ekipo berezi bat behar da: hizlariak mikrofonotik hitz egiten du, interpreteak kabina batean edo aparteko gela batean dagoela entzungailuetatik entzun eta itzulpena mikrofonotik ematen du. Itzulpenaren entzuleek ere entzungailu bat erabili behar dute itzulpena jasotzeko. Esanosteko itzulpena da Euskal Autonomi Elkarteko auzitegi epaitegietan bi hizkuntza ofizialen artean gehien erabiltzen dena. Horretarako, esanosteko interpretariak mezua ulertu behar du, gogoratu eta era koherente eta ulergarrian dagokionari eman behar dio.

Esan dugu beraz, lehenik eta behin mezua ulertu behar dela. Bi motatako arazoak suertatu daitezke puntu honetan:

- Hizkuntza arrunta ulertzeari buruzkoak: gerta daiteke zuzentza-administrazioaren zerbitzua eskatu duena eta interpretaria euskalki berekoa ez izatea. Horrek, elkar ulertzeko arazoak sor ditzake. LOPJ delakoaren arabera hizkuntza ezagutzen duen edonor aukera dezake interpretarirako, beraz, komenigarria litzateke hizlariaren euskalkia ezagutzen duen interpretaria izatea.
- Lege eta zuzentza arloko hizkuntza ezagutzea: hasiera batean aipatu dugun bezala, zuzentza edo lege arloa eta hizkuntza juridikoari buruzko ezagupenak beharrezkoak dira. Izan ere, zuzenbidean erabiltzen diren terminoak espezializatuak dira, hizkuntza arruntean erabiltzen ez direnak. Beraz, hauek ezagutzen ez badira ezinezkoa izango da ezer ez interpretatzea edo kalitatezko interpretazio bat egitea.

Bestetik, oroimena aipatu dugu. Izan ere, datak, zenbakizko datuak, enumerazio luzeak, toki izenak, pertsonaia desberdinak, kontrato bertsioak... aurkitu ditugu behin baino gehiagotan auzitegietan. Guzti horiek gogoratzeko notaketa teknika erabiltzen da.

Azkeneko fasea mezua ematea da. Bi hizkuntzetatik interpretatzea, bi hizkuntzetan eman beharra gerta daiteke. Hau da, epaileak, adibidez, gaztelaniaz esaten duena euskaldunari itzuli behar zaio eta hizlari euskaldunaren diskurtsoa epaile-fiskal eta abarrei.

Teknika hau erraza dela badirudi ere, praktikan arazoak sor daitezke. Izan ere, batzuetan gerta daiteke hizketan ari denari eten behar zaiola. Askotan kaleko jende arrunta izaten da, ez duena bere bizi guztian jendeurrean hitz egin eta, are gutxiago, epaitegi batean. Horregatik, pentsa daiteke hauek eten egin behar izatean hizlariaren jarduna baldintzatzeko arriskua dagoela. Hau da, pentsatzekoa da interpreteak egon izan ez balira ez ote luketen beste era batera hitz egingo. Are gehiago, hizketan ari direlarik interpreteak direnez eten diotenak, azkenean haiei begira hizketan hasiko dira eta ez epaileari edo galdera egin dion fiskalari edo abokatuari. Beste batzuetan, hasieratik itzultzailearen martxara egokituko dute beren jarduna, eta esan beharreko guztiak esaldika esango dituzte, interpreteak hitz guztiak itzul ditzaten. Horren ondorioz, beraien diskurtsoa “baldintzatua” geratzeko arriskua dago. Arazo hauek alde batera utziz, beste puntu bat azalduko dugu hurrengo lerroetan. Epaitegietan esan osteko interpretazioa erabiltzeak haren kontrola egiteko bide ematen duena hain zuzen ere. Izan ere, euskaraz egiten duenak gaztelaraz ere badakienez, euskaraz esaten dena ondo itzultzen ote den kontrolatu nahi izaten da.

Atal hau bukatutzat emateko aditu batzuek egindako gogoeta labur bat aipatuko dugu. Izan ere, askoren iritziz aldibereko interpretazioak izan beharko lirateke auzitegietan erabili beharreko sistema, honek dakartzan abantailak nabarmenak dira eta. Izan ere, aldibereko sistema erabiliz orain arte egin diren epaiketetan arazo bakarra abokatu elebidunak itzulpen grabazioak entzun behar izatea da, itzulpena ondo dagoela berresteko. Hau alde batera utziz, esan ostekoaren aldean abantaila nabarmenak dakartza: interpreteak erosoago ibiliko dira (itzulgaia bi bider entzun ahal izango dute eta); esan ostekoaren desabantailak (itzulgaia laburtu beharra, xehetasunak galtzeko joera, birformulazio-premia handiagoa) gainditurik geldituko lirateke; kontrola ere erabateko izango litzateke eta momentukoa, izan ere, denek entzuten baitute interpretearen itzulpena; eta, garrantzitsuagoa dena, ez dago behin eta berriz inor eten ibili beharrik.

4. INTERPRETAZIOA EUOPAR BATASUNEAN

Lanaren azken atal honetan auzitegietako interpretazioa alde batera utzi eta interpretazioa Europar Batasunean interprete baten ikuspuntutik aipatuko dugu, Jone Arregiren esperientziatik hain zuzen ere.

Jone Arregi Europar Batasunean dabilen interprete zaldibartarra da. 2012ko otsailaren 12 an elkarrizketa bat egin zioten *Argia* aldizkarian. Bertan, oso gauza jakingarriak esan zituen eta, horren ondorioz, komenigarria iruditu zait lan honetan islatzea. Noski, interpretazio lanarekin lotuta dauden heinean. Hasteko beharrezkoa da jakitea euskara Europar Batasunean Eskualdeen Batzordean, tokiko botereak biltzen diren batzordean eta, batzuetan, Ministroen Kontseiluan ere erabiltzen dela. Euskara erabiltzeko protokoloa 2005ean sinatu zen eta haren geroztik eskatu beti eskatu egin behar dela interpretea instituzio horietan, nahiz eta gero erabili ez. Arregiren iritziz hasiera haietan, Jose Maria Muñoa Kanpo Ekintzako arduraduna zen euskaraz mintzatzen zena, oso ondo gainera. Orain, aldiz, euskara ez dutela hainbeste menperatzen dio, eta modan dagoena euskaraz “egun on” esan ostean gaztelaniara pasatzea dela, euskarazko esaldiren bat tartekatuz. Hori interpreteentzat oso nahasgarria dela aitortzen du, hizkuntzaren erabilera sinbolikoa besterik ez baita egiten.

Kontuan izan behar dugu Europar Batasunean hizkuntza ofizial anitz daudela. Estatu Kideko hizkuntza ofizialak Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak dira ere. Baina euskarak ez du estatus hori Europar Batasuneko erakundeetan. Areago, hizkuntza gutxituek oso leku txikia dute bertan. Adibidez, Eskualdeen Batzordean euskaraz gain galegoa, katalana ere erabiltzen dira. Baina, bretoia, okzitaniara eta Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituak, esate baterako, ezin dira erabili, herrialdeak duen politikaren arabera delako. Parlamentuan ezin da hizkuntza gutxituetan hitz egin. Baina Arregiren ustez Parlamentuan baimendu beharko lukete, berez Parlamentua delako EBko erakunde demokratiko bakarra, hauteskunde bidez osatutako bakarra. Azkeneko urteetan Europar Batasunean zabaltzen ari den iritzia hizkuntza aniztasuna ez dela batere pragmatikoa da. Izan ere, batzuek diote batzarra asko oztopatzen dituela eta, azken finean, denek ingelesez dakitela. Baina azpimarratu beharra dago EBren politika dela hizkuntza aniztasuna bultzatzea eta Estatu Kideetako delegatuek haien ama-hizkuntza erabili ahal izatea.

Interpretazio motaz galdetzean aldibereko interpretazioa bereziena dela dio. Izan ere, entzun, analisisia egin, itzuli eta beste hizkuntza batean bota egin behar da. Horrek kontzentrazio maila handia eskatzen du, arreta bi lekutan jartzea eta informazioa oso azkar prozesatzea. Horregatik azaltzen du ordu erdiko txandetan egiten dela lan. Bestalde, lan honetan zehar aipatu dugun gai garrantzitsu bat ere aipatzen du interpreteak elkarrizketan zehar: espezializazioarena, alegia. Izan ere, Arregik dio alde aurreko dokumentazio lana oso garrantzitsua dela. Hau da, hizkuntzak lantzeaz gain, gaiak landu behar direla. Horregatik, Batzarrak oso teknikoak direnean ikastaroak egin behar izaten dituzte. Beste batzuetan, azalpenak jasotzen dituzte aurretik. Terminologia bakarrik ez, kontzeptuak menperatu behar

dira, hitzaren bat ez ulertzea egunero gertatzen delako, baina gaia menperatuz gero, informazio osatzeko aukera izango dutelako interpreteek.

Oso garrantzitsua da garbi uztea hitzak ezin direla moldatu interpretatze lanetan. Horrek haien kode etiko eta deontologikoaren kontra egitea litzateke. Ezin da informazioa kendu, gehitu edo moldatu. Printzipioz inpartzialak izan behar dira, izan ere, kanal bat baino ez dira interpreteak, informazioa jaso eta botatzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, Arregik aitortzen du diskurtsoa oso txarra bada jantzi egiten dituztela interpreteek. Baina badagoela benetako eztabaida han. Hau da, jatorrizko diskurtsoa txarra bada, apaindu behar dute ala diskurtsoak utzitako sententzia igorri? Erantzuna pixka bat jantztea da, gutxienez modu ulergarrian informazioa ematea.

Amaitzeko aipatu dezakegu jakina dela interpreteak ama-hizkuntza ez diren hizkuntzak menperatu behar dituztela. Arregik dio hauek ikasi daitezkeela, baina ez ama-hizkuntza mailan. Egia da interneti esker hizkuntza guztiak ditugula eskura gaur egun, baina hizkuntza bat benetan ikasten da bertakoekin hitz eginez. Zaila da nork bere hizkuntza menperatzea, beraz zer esanik ez gainerakoak. Hori da aditu honen iritziz hain interprete gutxi egotearen arrazoia.

5. ONDORIOAK

Garbi dago lan ugari dagoela oraindik egiteko interpretazio-lanetan euskararen ahazko presentzia areagotu nahi bada. Baina, aurrerapausoak jadanik eman direla ukatu ezin da egin. Gaia lantzen hasi garenean ikusi egin digu hasiera batean euskara erabiltzea hitzunen borondatearen arabera zela, ez baitzegoen inolako betebeharrak edo araudi berezirik euskaldunak euskaraz hitz egitera bultzatzen zituenik.

Gaur egun aldiz egoera nabarmen aldatu egin da. Izan ere, aztertu dugun moduan, lege nazional eta internazional ugari daude hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Gure kasuan, oso garrantzitsua da kontuan izatea Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiak beraiek hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahal dutela. Kasu hauetan, interprete baten presentzia beharrezkoa da pertsona baten oinarriko eskubideak errespetatu nahi baldin badira. Euskal Herriaren kasuan, justizian, gaur egun oraindik hizkuntza bakarra erabiltzen da gehietan, gaztelera. Baina herritarrok berezko eskubidea dugu euskaraz egin ahal izateko esparru hauetan ere eta horregatik justizia-sistemak herritar horiei euskaraz kasu egiteko eta erantzuteko betebeharra du, interpreteen bidez. Horrela, interpreteak justiziaren osagarri bat bihurtu dira.

Aldibereko interpretazioa oso berezia da ikusi ahal izan dugun bezala. Izan ere, entzun, analisia egin, itzuli eta beste hizkuntza batean bota egin behar da. Horrek kontzentrazio maila handia eskatzen du, arreta bi lekutan jartzea eta informazioa oso azkar prozesatzea. Gainera, terminologia berezia erabiltzen dela aipatu dugu ere. Horren ondorioz, auzitegi eta epaitegietan interprete-lanean aritzeko zuzenbidea eta zuzenbidearen ingurukoak zenbat eta hobeto ezagutu hobe. Hau da, alde aurreko dokumentazio lana oso garrantzitsua da. Hizkuntzak lantzeaz gain, gaiak landu behar dira. Terminologia bakarrik ez, kontzeptuak menperatu behar dira, hitzaren bat ez ulertzea egunero gertatzen delako, baina gaia menperatuz gero, informazio osatzeko aukera izango dutelako interpreteek.

Bukatzeko, gogoeta txiki bat egingo dugu. Aipatu dugu interpreteen lana komunikazioak dituen eragozpenak gainditzeko zuzia izatea da. Hala eta guztiz ere, epaiketetan interpreteak denei erabateko konfiantza eman behar die. Hau da, inork ezin du euskaraz edo gaztelaniaz egin erabakitzeke orduan interpretearen beldurrez egon. Adibidez, bizkaitarrak ezin du bizkaieraz egiteko beldurrik izan, interpreteak ulertuko ote duen ziur ez dakiela-eta.

Auzibidean interpretearen premia baldin badago, interpreteak auzibideko gainerako osagai guztiak baldintzatuko ditu. Adibidez, abokatuak ezin du hiru minutuko "azken hitzaldia" irakurri eta interpreteak dena hitzez hitz itzuliko duela espero izan. Hau horrela bada ere, interpreteak bi ezaugarri bete behar ditu bere lana gauzatzean eta kalitatezko interpretazioa egin nahi izanez gero: hasteko interpretea izan behar da eta, bigarren, interprete espezializatua. Ez da nahikoa aurretiaz abokatuarekin, adibidez, hitz egin ze terminologia erabiliko duen adostuz, aipatutako legeak aurretiaz paperera itzuliz eta abar. Ezagutza horiek berez izan behar dituzte auzitegietan dabilzan interpreteak. Horregatik, justizia arloko premiak betetzeko, Justizia Sailak bere itzultzaile-interprete propioak ditu.

Asko aurreratu da beraz interpretatze-lanetan. Espezializazioa gero eta handiagoa da, eta, horrek, interpretazioaren kalitatea hobetzea ekarri du. Prozesua oraindik amaitua egon ez arren, gure hizkuntza-eskubideak epaitegietan aldarrikatu ditzakegu. Hauek erabili ala ez gure esku besterik ez dago. Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.